

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bosgarren Urtea - Pamplona. Enero 1970 - Urtarrilla (Ilbeltza). Iruña - 47 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

BATASUNAREN ALORREAN

Urteberri. Gaia aukeratzeko biderik izan banu hauxe aukeratzeko nuen nik: **Urteberri.** Hain da luze ta zabal, garbi ta ernagarri iñungo aizeak zikindu ez duen urtearekin amets egitea! Dena zuri, dena berri. Ez da ilunik ikusten; egun argiak bakarrik. Errege bezperako haurren gaua...!! Urte berri bati begira jarri-ta ez ote gera danok, ixilian, haurrak bezala!

★

Baño, ez dago nahi dena egiterik. Ametsak baztatu eta egunoroko soka muturrari ekin beharra garrantza da gehienetan. Biziak gaitu, egoak orbela bezala, nahi duen lekura erematen. Hasi berri dugun urteak ere sortu aurretik dizkio zezenari adarrak ikusi; urte zaharren sabelletik. Nahiko lan izango du gurekin. Zoin den soka-muturrekoaren izena? **Batasuna.** Ezta pottoko txarra.

★

Besteren iritziak behartzen nau hortaz mintzatzera. Ez dut esan nahi iritzirik gabe nagonik gai hontan. Nereari ere etorriko dakio garbi agertzeko garaia. Nerea baño gehiagotzat dauzkat neregana zuzendu diranena. Gaur ez bada biar kontuan eukiko ditut denak.

Era askotakoak dira. Ezin denak batean zuzendu. Alare, gutxitan gertatzen dena, txapel bakarrarekin estal laiken helburu bat ikusten da dene-

tan: galduan bada ere, batasunera joateko nahia. **«Norekin edo harekin, bat egin»**, esan nahi balute bezala.

Ez da gutxi. Batasuna ez da esku lana. Eskuak uztartzeko on dira, eta mutur jakako ere bai. Norberaren barneak ditu eskuak mugitzen. Batasuna sortzekotan kezka batek du pizten, eta konzientzi sakon batek zabaltzen. Bihotz aundia behar da hortako; zikoitzak ez du berea besterik ikusten. Borrokako beti prest. Halakoen batasunetik berekoitasunera hain da bide motza!

«Berrogeitamar urteko gurutze-bide latza ibili ginuen batasunera iritxi baño lehen», esan ziguten katalandarrak Iruñeko billeran. Eta barneago sartu zitzaidana —hitz erdika esana—: **«Beren hitza ez-painetan josita ereman omen zuten orduko setatsuak beste mundura. Hura izan omen zen batasunaren ordua.»** Bide bera ba deramagu ere, negargarri litzake gutaz beste horrenbeste esan beharra norbaitek. **Nola nahi dela, gurekin edo gu gabe, batasunarena da etorkizuna.**

★

Aurrelarien gidaritza zertan den, galdetzen dit norbaitek. Teila eskaseko teilatua, dena itaxura. Hobe hortaz hitzik ez egitea. Lituji berriko batasuna, edo dena dala, hor dago gure artean. Anaien bihotzak mintzeko biderik

egokiena ez da Meza santua; baño mingarri da. Geroak aztertuko gaitu.

★

Urteberriko ametsak nun dira galdu? Batasunaren alorra arantzaz josia arrapatu du; giroa gogor. Baño udazken on batek negu txar asko ditu berdintzen. **Nork daki sartu berri dugun urteak ez dion zuhurtasuna ta pakea ekarriko Eskualerriari! Alkar hartu, bideak zelaitu, euskeratu... zer amets ederra!**

J. M. S.



EUSKERA IDATZIAREN BATASUNA

Ez! Sasi - letradueri

Gaur egun, euskal idazleok, gehien-gehienok gera sasi-letraduak. Sasi-letraduak izan dira munduko idazlerik handienak ere, literatura lantze kontuan. Baina, idazleok, toki guzian jarraitzen dute hizkuntzalarien kontseilua eta berek hautaturiko normak. Gurean ezin geneza bestera jokatu.

Gaurko bizitzak, joan-etorrietarako dituan aukera errezeekin, herriak alkarrengana lehen baino gehiago urbiltzen ditu. Gaur, nornahik eta noiznahi gaude Donostian edo Bilbaon, zein Baionan edo Iruñean. Eta honek eskatzen digu euskalkien forma hestuetatik atera beharra.

Hontaz gazteak errezago ulertzen dute, zaharrak beti lehengo mutu erari lotuago daudelako. Eta, gazteak, nonnahiko gazteak, batasun eske ari zaizkigu. Ta bada beste fenomeno bat ere: Espainiako edo naiz Frantziako edozein unibersidadetan nahasturik arkitzen direla probintzi guztietako estudianteak, gaur inoiz baino gehiago euskerarekin arduratzen direnak eta hanitz euskeraz ikasten edo euskeraz hobeto hornitzen edo sakontzen ari direnak. Hauek ere batasun eske ari zaizkigu, beren arteko har-emanetarako eta ikastaroetarako hain beharrezkoa iduritzen zaielako. Beraz, nork uka inoiz baino batasunaren premia handiagoan arkitzen gerana?

Behar hoiak ikusirik, 1964-tik hiru aldiz egin dira deiak batasunari buruz bilera nagusiak egiteko. Baionan 1963-an «Euskal idazkaritzaren» deira eta Ermuan (Bizkaia) 1968-an «Gerediaga» elkartearen deira. Geroago, ezin bestean, derrigorturik bezala Euzkaltzaindiak deitu zituen Arantzazura 1968-ko urrilean idazle, irakasle eta euskaltzaleak, erarik orokorrean. Hiru bilera nagusietan joera berdineko iritziak nagusitu ziren, eta jarraitu beharra dute bene-benetan batasuna nahi dutenak. Bestela gezurrezkoa da batasun horren nahia.

Beren iritziak agertzeko eta defenditzeko aukera izan dute. Egiak ondo biribildu eta eusteko gauza ez baziran, joanak joan, beude isilik.

Arantzazura arte idazle asko ginen nora ezean. Baina han argi ikusi zan, gure hizkuntzalari handia den Mitxelena zer bide proposatzen zigun.

Gaur egun, zientzia gailen dan garai honetan,

gaxorik gaudenean medikuagana joaten geran garai, eta ez sasi-medikuagana (enplasteruagana), normalena da letraduari jaramon egitea, eta ez sasi-letraduari. Huts egiteko harrisku gutxiago bai dugu.

Gainera, Mitxelena hainbeste hizkuntza eta hizkuntzaz dakien ez euskeraren euskalkiak beste inork ez bestean ezagutzen dituen ez, zein gera gu bere esaneri ez jarraitzeko? Euskaltzaindiak etzuen alperrik izendatu batasunaren proposizioa egin behar zuen batzordearen buru. Eta batasuna hain beharrezkoa ikusten dugunok, Mitxelena, bere proposamenduetan beste bide batetik abiatu balitz ere, guk handik jarraituko genion.

Jakina, ta hau Mitxelena berak alde aurretik esan zuen, batasunak dakarkigun guztia danori gogoko izatea ez zela posible. Batzuentzat ondo zana, besteentzat ez; eta iritzi batzuetan bat zetoztenak, besteetan ez. Baina, era orokorrean denontzat egokiena izango zen bidetik jo behar zala.

Zenbait gauzaren artean, neri ere etzait gogoko H letra (eta hau izan zen Arantzazun oztoporik handiena, gezurra badirudi ere; zeren letra bat gora-behera ez baitu hainbeste axola euskeraren batasunerako). Baina batasunerako, gaur, behar-beharrezkoa dugula, ez dut zalantzarik. Eta batasunaren alde hartu beharra dut euskera idatziak lehengo mendeetatik erabili duen letra hau. Are gehiago gaur batasunaren sinbolu bat bezala altxa delarik.

H nahi ez dutenak, gaiztasuna jotzen dute erraztatzat, eta erabiltzen hasi geranok argi ikusten dugu, geroago eta argiago noski, H ondo erabiltzea ez dela gauza hain zaila, gehien gehienetan erregela jakinak dituelako eta maiz hitzak zehatzago bereizten laguntzen digulako.

Beraz, kontu hoietan, ez! sasi-letradueri.

Eta gehienok sasi-letraduak geranez, amor eman dezagun letraduen aurrean. Oroi Bruegel-en kuadru hartaz: Itsuen parabola. Eta libra gaitzean itsuak itsua gidari hartuta amiltzean erortzetik. Horregatik diot: ezetza, sasi-letradueri.

Juan San Martín



RECORDANDO AL MAESTRO

D. ARTURO CAMPION

Por CARLOS CLAVERIA

Una de las figuras más relevantes de la cultura vasca, es la de don Arturo Campión, el gran polígrafo navarro, nacido el 7 de mayo de 1854 en la ciudad de Pamplona.

Estudió en la Universidad de Oñate, donde halló de profesor al joven pero ya insigne jurisconsulto don Estanislao de Aranzadi, de quien aprendió mucho del humano saber, pero también un gran amor por la tierra y el alma vasca. Los últimos años de su carrera los hizo en Madrid, en donde obtuvo el grado de licenciado.

A su regreso a Pamplona, dedicóse con afán al aprendizaje de la lengua vasca adentrándose tan profundamente en sus entrañas, que hoy puede considerarse como uno de los maestros señeros en semántica y filología euskérica. Su gramática de los «cuatro dialectos literarios» de la lengua euskara, editada en 1884, en Tolosa, lo sitúa a la cabeza de los didactas euskéricos, siendo en ella donde se han formado muchos escritores que con posterioridad siguieron sus huellas.

Don Arturo Campión pertenece a un período histórico en que brillan los nombres de Iturralde y Suit, Hermilio de Olóriz, Navarro Villoslada y se cierra con don Julio de Urquijo y don Resurrección María de Azkue, figuras todas ellas que tanto amaron las tradiciones, la historia y la lengua vasca, haciendo posible el renacimiento de Euskalerría.

Como escritor, su pluma fue infatigable. En el género histórico, tenemos la serie de las «Euskarianas», en donde además de su contenido propiamente histórico, trata de otras cuestiones relacionadas con la ciencia etnológica, en las que Campión fue toda una autoridad. Como investigador, nos ha legado documentos y escritos que son un verdadero tesoro, muchos de ellos condensados en su obra «Orígenes del pueblo euskaldún», meritisima en su contenido y que, indudablemente, tiene que contar en cualquier estudio que pretenda llevarse a cabo sobre el pueblo vasco.

Es Campión un literato, que da a las páginas salidas de su pluma un colorido intenso, ya en las descripciones, como en los diálogos

siempre jugosos, amenos unas veces, gráciles y sencillos, sobrios y profundos otras, pero siempre campeando en sus obras puramente literarias la belleza y el arte. Como ejemplo tenemos sus célebres «Narraciones Vascas», en donde «El bardo de Itzazu», «Pedro Mari», «Gratxina», «El último tamborilero de Erraondo», etc., saturadas todas ellas de ternura y entrañable nostalgia.

Pero Campión no se conforma con esta producción de tono menor, su genio le lleva a crear obras de mayor envergadura y publica novelas como «Blancos y Negros», reflejo del ambiente político del País Vasco a raíz de la segunda guerra carlista; «Don García Almorabid», de carácter histórico, y «La bella Easo», en la cual acomete cuestiones relacionadas con la sociedad vasca y sus conflictos.

En resumen diremos que las características de este escritor son: fondo denso, disección minuciosa de los personajes y galanura en la expresión.

En su actuación dentro de la política, Campión fue diputado a Cortes por Navarra cuando la Gamazada, defendiendo con entereza las libertades forales.

A Navarra le cabe la satisfacción de haberle contado como uno de sus parlamentarios en el ciclo histórico de 1893 a 1894. El discurso que pronunció el día 22 de julio de 1893, contra el proyecto de presupuestos, fue una pieza oratoria con una magnífica exégesis del derecho foral, expresada con una dialéctica tenaz y decidida.

Siempre sobre motivos vascos, pronunció gran cantidad de conferencias y escribió centenares de artículos en las más diversas publicaciones, y entre ellas «Revista Euskara», «Euskal Erría», «Euskal Erriaren Alde» y «Euskal Esnalea». Fue un periodista de fibra, ardoroso y de una gran fuerza polémica.

Durante muchos años ejerció el cargo de Presidente de la Comisión de Monumentos Históricos de Navarra, precursora de la actual Institución Príncipe de Viana. Por propia iniciativa y costeada con sus medios económicos, Campión funda la «Revista del Antiguo Reino de Navarra», en la que colaboraron las mejores plumas de su

tiempo: Olóriz, Cayuela, Iturralde y Suit, doctor Landa, etc.

De euskeralogía y sin llegar, desde luego, a la categoría de su «Gramática de los cuatro dialectos literarios», publicó un «Ensayo de las leyes fonéticas de la lengua euskara». En el idioma milenar escribió la bellísima balada «Orreaga», de encantadora versión dialectal, y «Denbora anchiñakoen ondo esanak».

Don Arturo Campión fue un trabajador incansable, y ya en los últimos años de su vida, cuando todavía dictaba a su secretario don José Zalba sus escritos póstumos, con una energía desbordante y con una lozanía asombrosa, dirigiéndose a éste exclamaba: «Amigo Zalba, éstos sí me fallan, pero este otro, cada vez más despierto». Refiriéndose con los primeros a los sentidos y con el segundo al cerebro.


Todo lo relacionado con la temática vasca le subyugaba, pero especialmente el idioma, cuyo cultivo llegó a constituir en él una verdadera obsesión. En el preámbulo de su «Gramática» exclamaba así: «Aunque el euskera fuera un idioma desabrido y torpe, le amara yo como a las niñas de mis ojos».

Era ya en los últimos años de su vida cuando se fundó en Pamplona la sociedad euskarista denominada «Euskeraren Adiskideak», pero a cuya creación contribuyó, prestándole todo su apoyo económico y moral.

Don Arturo Campión murió en San Sebastián el 18 de agosto de 1937, cuando la vorágine de la guerra había sacudido hasta en sus cimientos las tierras de Euskalerría, pero su nombre y su obra perdurarán, porque él hizo lema de la misma frase «Euskal Erriaren Alde» y a este fin encaminó todos sus esfuerzos haciendo del mismo norma de su vida, saturada de la más profunda mística vasca.

Pamplona está en deuda con don Arturo Campión, y ya va siendo hora de que se piense seriamente en dar su nombre a una de las calles de la ciudad, rindiendo homenaje a tan eximio navarro y pamplonés.

(«Txistulari» izeneko aldizkaritik jasoa).



ELIZAREN ITZA

BATIKANOKO II BATZAR NAGUSIA

Eliza gaurko munduan (2 zatia, 47, 48)

Gizartearen aurrerapenak eta gizonaren nortasunak ikuskizun aundia daukate famili ta ezkontzaren ongi eramatearekin, orregatik sendi ta ezkontzaren giroa xamurtu ta landu nai litzake senar-emazte ta gurasoek beren eginkizun aundiak errexago bete ditzaten.

Sendi ta ezkontzaren ederra, goibel ikusten dugu zenbait lekutan, gizon batentzat andre asko, ezkontz urratze edo lokura gabeko aragi nasketa batzukin. Elkarrekiko maitasuna, aldiz, berekoikeri ta aurrik ez sortzeko asmakizunekin, zakaturik dago. Bestalde, gaurko eguneko lan-sari murriz, etxe bizitza zail t.a. buru-auste latzak sortzen dituzte. Azkenik, kezka franko dekar kite munduko zenbait alderditan jende ugaritze izugarriak. Kontzientziko korapillo ugari sortzen dute gora-bera auk. Ala ere, sendi ta ezkontzaren indarra ta egokiera, gaurko eguneko aldaketa eta eragozpen guzien gañetik nabari da. Orregatik, Eliz Batzarrak Elizaren erakuspide batzuk argioko jarrit, kristaueri ta ezkontzaren asierako ederra piztu naiean dabilzen gizon guztieri, argi berri ta eragin-aldi bizkor bat eman nai lieke.

Gizon eta emakumearen elkar-maitasuneko biziera, Jainkoak jarria, ezkontzako itunarekin, au da, bakoitzaren era bateko baietzkoarekin, asten da. Onela ezkongaiak, bata bestearen korputzeko jabetza eman eta artuz egiten duten ituna, ematen duten itza, bizikera berri eta iraunkor bat da, Jainkoak jarria, gizarteak ontzat artzen duna; lokura sakratu ori, senar emazteen, datorzken aurren eta gizartearen onerako baita, ez diteke urratu inor-beraren naierara. Ezkontza jarri duena Jainkoa da, bakarra bakarrarekin eta betiko, gizadiaren iraupenerako, aurren aza ta ezibiderako eta ez-konduen betiko salbamendurako. Orregatik gizona ta andrea, ezkontzako ituna ezkerok «ezdira bi, aragi bat bakarrik» (Mt. 19, 6) elkarri lagunduz, egunetik egunera batuago bizi ditezten. Batasun onek ta aurren on eta buruzpideak, elkarrekiko leialtasuna eskatzen du ta ausi urratze guztik zain-muñetatik eragozten.

ESKALERRIKO LEJOTA

tziskotar argi honek Euskaltzaindiari honako izenak presentatu zituen (Urteko ordenan jarriak):

URTARRILLA, OTSAILLA, MARTXOA, APIRILLA, MAIATZA, EKAINA, UZTAILLA, ABUZTUA, IRAILLA, URRILLA, AZAROA ta ABENDUA.

Emen Nafarroan URTARRILLA eta ILBELTZA esaten da. EKAINA eta GARAGARRILLA. ABUZTUA AGORRILLA. IRAILLA edo BURUILLA. AZAROA eta baita ere AZILLA.

Honelako moduan gauzak gai honi buruz argi-goak geratu dira, eta guretako, euskaldun naparrontzako, entelegarri eta erraz zaigu. Komeni da denok ikastea.

EUSKALTZAINDIAREN LAGUNTAILE BERRIAK

Euskal Akademiak izendatu berri dituen zazpi laguntzaileen artean bi Nafarroko semek ditugu: Jose Estornes Lasa eta Jorge Cortes Izal.

José Estornes Lasa Erroñkari Balleko Isabako errian sortua da; euskaltzale sutsu eta zintzoa, euskeraren alde etengabe lan aunitz egin eta egiten dituena. Iruñeko «Euskalerriarren Adiskideak» Elkargoaren Lehendakaria (Burua) da.

Jorge Cortes Izal Saraitzu Ballearen Otsagi'ko errian jaioa. Iruñean bizi da beti nekatu ezinez euskeraren on eta zabalkunderako. Iruñeko «Ikastola» (Euskal Eskolategia)-ren sortzaile eta zuzendaria urte gutxitan Euskal Herriko Ikastolarik aundi eta onenetan izana. Nafarroko Diputazioaren «Príncipe de Viana» Instituzioaren «Euskerra» Saillaren Zuzendaria da.

Gure bi adiskidei zorion eta goresmenak.

Ikusle



EMAKUMERIK BIKAIÑENA



María de las Nieves Díaz, Azkoienko alaba, erriberakoa beraz, ezkondua. Lau semeke ama. Pollita, begikoa, argia, etxeko lanak ongi egiten dazkiena, alaba, emakume zintzo berez, apain eta ponpo'a, ikasia, eskolatua. Honelako emazteakia 1969 urteko España'ko EMAKUME BIKAIN ETA EZIN OBEA izendatu dute. Ezta ohore makala eta sari ederra Peralta'ko alabak Madril'dik ekarri dizkiguna! Zorionak!

HOLANDATAR BAT EUSKALDUN BERRIA

Rudolf P. G. Rijk jauna mundu guzian fama aundiko izkuntzalaria (linguista) da. Holanda'ko Amsterdam urian sortua da baño Amerikako «Estadu Batuak»-etan bizi da Massachusetts Unibersidadearen mintzairerako Erakasle izanik. Dakizkin izkera aunitzen artean gure euskera da. Horain Chicago'ko Unibersidadearen Euskal Katedra nahi du bere gain artu eta honetarako gure euskal Errira etorri da euskerari buruzko ezagutza, euskera bizi dan toki ber-beran obeki, zuzen eta egoikiago ikuskatu, aztertu eta ikasteko.

«ANAITASUNA» izeneko Bizkaiko euskal errebista berriz ere ari da ateratzen

Pozgarria da euskaldunontzat, berriro gure artean Bizkaiko «ANAITASUNA» deitzen den aldizkaria. Diru eta laguntza eskas ta illabete batzuk argitaratu gabeen egonez geroz lehen bezala amabost egunean behin ari da gure eskuetara irixten

Egitan maitatua dugu amabosteroko hau eta hemendik anai arteko agur xamur bat igortzen diogu.

Etxean artzen nahi duenak zuzentzide hauetara izkribu dezake balio eta xehetasunak jakiteko: «ANAITASUNA» ren Zuzendaritza.—Apartado 17.—GALDANKANO (BIZKAIAN).

ILLABETEEN IZENAK EUSKERAZ

Denok dakigunez illabeteen izenak euskal lurralde batetik bestera, eta askotan gertatzen dan bezala erri batetik bestera, oso ezberdina, diferentek dira. Euskaltzaindiak izen hauen bateratzen alde Aita Villante Euskaltzain jaunari agindu zion batasunaren onean euskeraz esandako illabeteen izenik erabilenak aztertu eta bereixtu zitza. Arantzazu'ko Aita Pran-

Urriaren 12'an, Ama Virgiña Pilare'ko egunian, Marquinan entzundako bertso zonbeit.

Urtean beingo batzarra baita
Guztion mesedegarri,
Pilar'ko Ama'n eguna etzan
Ortarako alperrik jarri.
Gertatu dana ikusi eta
Gu ain gaude lotsagarri,
Lau ikasle bildu gera emen,
Maixurik ez da etorri.

Urtean beingo batzarrarekin
Ezin asi jolasian.
Nun alkartu bear degu, jaunak,
Emen alkartu ezian.
Maixurik infortxo azaldu ez
Ain jokaera narrasian,
Kobratzeko izan balitz
Danak etorriko ziran.

Zure bertsoa adituz orain
Asetu zait, bai, barrena
Eta bertso bat agertuko det
Bururafio datorrena.
Nik pentsatzen dean pusketa
Izakera au onena;
Gizon aundiagua ezta gero,
Diru mende dabillena.

..... goguan daukat
Gaur zuk aitortu dezuna.
Zuk badakizu nola dabillen
Emengo eginkizuna
Orregatik egin badute
Daukate trampa lizuna

Diruagatik saldu ote dute
Emengo gizatasuna...?

Kendu daiguzan gure burutik
Alako tentaziñoak.
Urrindu beitez pozo illunetik
Sortu ditugun lañoak.
Bakoitzak zintzo jarraitu bedi
Aztertuaz engañoak,
Urrerengoa urtean bilduko ditu
Sortu dan komisiñoak.

Uranga'k:

Ara Enbeita biotzekua
Etzera gizon makala
Nik ezagutzen dedanetikan
Beti maitatzen dedala.
Bi abaderen erdian dago,
Ain gizon on da apala
Beitu batean ematen dezu
Aita Santua zerala.

Embeita'k:

Uranga jaunak neri emon dauts
Ia azkeneko itza,
Baña burua ez daukat illun
Oba argiau balitza.
Gizon aundien erdian nago
Samurra daukat biotza,
Gauzak obeto egingo litzakez
Aita Saintua banitza.



Bertsulariak elkar mindu ez ditezen
Ez degu izenik ematen,
Bainan bertan esanak
Konbeni da denek jakin ditzaten,
Ama Birgiña Pilareko bilkurak
Bear den edertasuna
Izan dezaten.

...Gure aldetik
ez degu besterik eskatzen.

Dr. Hernandorena

Pakea non ote?

«Erraz da Pakea»
zion zaldunak.
«Errazago gerla»
ots oartzunak.

«Dirua izanez,
pake naiteke».
Oartzunak berriz:
«Dirua, neke».

«Izen onarekin...
nai dan guziaz».
Oartzunak: «Ori
ez da egia».

«Osasun onakin,
zernai banauzu».
Oartzunak: «Arro!
Deus etzara zu!».

«Pake bizitzeko,
aski lagunak».
«gerlako ere bai»,
dart oartzunak.

«Besten aferetan
ez sar ta pake».
Oartzunak: «Ori,
nortzuk lezake?»

«Pakezko bizitza,
agintaritzan».
«Billa (oartzunak)
urrak aritzan».

«Gudari azkarrak,
pakea zu».
Oartzunak: «Ez zuk
gerletan biur».

«Pakea berekin,
indartsu danak».
«Indartsu arroak,
ez!» oartzunak.

«Argiak lezake
ikus pakea».
Oartzunak: «Baita
galdu bidea».

«Pakea, ba, non nik
arki lurrean?»
Oartzunak: «Zuk non?
Maitasunean».

«Ta nik nor behar dut
emen maitatu?»
Oartzunak oiuz:
«Danetaratu!!!»

«Erremesa dana,
maite behar nik?»
Oartzunak: «Zuk, bai,
orixe lenik».

«Esker txarrekoa,
pake-etsaia».
Oartzunak: «Ori
maitzen saia».

«Nere gogokoa
dana, nik maite».
Oartzunak: «Ez da aski:
zabaldu zaiten».

«Ni maite ez nauna,
nola nik artu?»
Oartzunak: «Ori,
zeuretan sartu».

«Iñor ez dezaket
bazeratu beraz?»
Oartzunak: «Iñor!
Pake izateraz!!»

«Etzaitzu lege on
zullen zallena?»
«Zalla (oartzunak)
ta oberena».

«Munduak ez du ba
ain ontzat artzen».
Oartzunak: «Ez da
Pake arkitzen».

«Beste bideren bat
Pakearentzat?»
«Ez da (oartzunak)
egizko beintzat».

IBARRONDO

Jeiki jeiki Maria - Anjela, 1969-an

Primaderako goiz iguzki garbi batez zortzi orenetan, usaian bezala joan nintzan Maria Anjela jeiki araztera. Hau nekez altxatzen baita goizetan, nere abisari etzuen arraposturik, orduan leihoa zabaldu eta iguzkiak hunkitzen zuela bere ohia hasi nituen bertso hauk eta urran egunetan finitu, Luzegi baita suiet emaiteko bertsutan, hemen dagona negurtua da 15-etan.

Airea: "Jeiki jeiki etxeokak".

Jeiki jeiki Maria-Anjela, argia zabala da.
Zerutikan iruzkia garbi eder heldu da,
Ottok zure askaria orai prestatua da
segur zure gostura.

Askaria zuk jan eta tubaleta egitia
Bezti garbiak jauntzi eta, biloa moldatzia
Haren ondotik harturen du Eskolara bidia
zure obligazionia.

Bide hori eginen du zuk eta nik batian
Eremanen zaitut harat nere auto ttipian
Bai ta ere ekarriko gero gisa berian
Eskola finitizian.

Zure ottok nahi luke zu ongi edukatzia
jostaketak negurrian, et'anitz ikastia
Aunditu eta errespetuz egiteko bizia
laite paregabia.

Otto hunen kontsiluak hartu ontsa burian
Gau-egunak pasatzen tut orai zure guardian
Nahiz ontsa zu gidatu jendetasun modian
zerurako bidian.

Mundu hontan irriskuak guzientzat badire
Lanjerretik beiratzeko izan zazu bertute
Emazteki baliosak hortan ezagun dire
hartu beti kuraie.

Aita-amak galdu tuzu zuk haurra zinelarik
Heien deborrek guk egiten, zuk behar tuzularik;
Otto ta ttantta okupatzen dira zutaz bakarrik
ez baituzu hoberik.

Zu zaitugu mundu hontan azteko haur bakarra
Zurekilan enpleatzen pazientzia ta indarra
Jabeik gabe geldituzian, kusiz zure beharra
ordutik zu gure haurra.

Zertzi urte orai tuzu sorturikan mundura
Bi-eta-erdi bazintuen jin zinelaik gutara,
Ezin ahantz dezakegu orduko zur'itxura
bihotz hauts-garri hura.

Ikusirik baizik nehorik ez dezake sinetsi
Zer tormentak egun batzuz zuk dituzun ikusi:
Doctor, Nursa, oro arrotz, nehor konsolagarri
Ait'amak han galdurik.

Amabi egun egin zintuen Fresno-n ospitalian
Zuretako zer sofriztiak ahal ziren ordian,
Oraino re senditzen dut lliga bat bihotzian
han zutaz croitizian.

Egun txarrak pasaturik onerat bazuatzi
Zuen auziak hasirikan ia sei urte baditzi
Parte bat da konpondua, bertizian orai hasi
ez baita segur goizegi.

Auzi horrek eman deraut sobera pentsaketa
Gau-egunak arranguran nihun ezin deskantsa
Adina re bizkarrera jautsi zeraut doblezka
hau da nere presenta.


Justiziak ezarri nau zure aferen gidari
Kontuak nik zuzen eman behar ditut jujari;
Ogoi-ta-bat urte arte ez zira zeure nausi
ordu arte banintz bizi!

Emeretzi ehun eta hiru-ogei bederatzia
Kanta hauk nik eman ditut ilobaren haurriari
Oroitzapen altxa ditzan guk hura azi sari
esker Jinko Jaunari.

J. C. Arrosagaray. POMONA (Calif.)

(Hau da Luzaidarren oroitzapena
Eta zombaitentzat pena aundiena;
Nahi duena altxatu kopia onena
Ahantzgi gabe, nola igan bertso emailena).

ANTXON VALVERDE




Beste euskal disko bat atera berri da. Hau da Antxon Valverdarena Lau kanta ditu: UTSA, KONTXESI'ri, PERU GUREA eta GOIZEAN MENDI.

Lehenengo kantaren itzak Valverde berberak jarriak dira eta soñua (doñua) Xabier Aranburuk prestatu du. Bere gaia Orioko seme den Jorje Oteiza euskultoreari buruz da. Gure idurigille famatua goraltzen da kantu honetan eta bide batez kantariak esaten du gure euskal sustraia, gure euskal zain eta erroa gure mintzaera zaharrean, euskeran, billatu behar dugula.

Beste iru kantuak aintziñoak dira, KONTXESI'ri izenekoa Juan Inazio Iztueta zenaren itzak eta doñua dira bere Kontxesi maiteari eskeinduek. PERU GUREA deritzana Bizkaian billatutakoa da, Resurrección María de Azkuek izan zan jaso zuena. Gaia: emazte batek bere gizona senarra engañatzen du. GOIZEAN GOIZIK izenekoa disko honen azken kantua da, bere itzak eta soñua ez ezagunenak dira, Zuberokoa da eta bere gaia: neska

baten tristetasuna. Goizean iratzarria (esnatuta) eguerdian ezkondua eta illunabarrerako alarguna biurturik.

Disko interesgarri hau salgai dago. Donostiko «TXERTO» banaitzaleak (distribuidoreak) bialduko dizu, irakurle, aurretik eskatzen baldin baduzu zuzenbide hauetara: TXERTO — Apartado 767 — Donostia.





PILOTARIAK

Hazaroaren 30'ean Bergara'ko pilota plazan Espainia'ko esku-huskako pilota Txapelketa yokatu zuten. Partida hau Mayatzean yokatu beharra zuten baña Atano ongi etzagola ta partida gibelatu zuten. Gero Atano azkartu zenean, orduan Retegi'ren aldia, honek ere behar zuela bere burua ongi prestatu. Azkenean biek ados gertatu zirelarik eta gehiago luzatu gabe, Hazaroaren ogeitamara autatu zuten beren arteko auzia erabakitzeke. Bergara'ko plaza bete bete yendez eta trabesak Atanoren alde. Retegi paxa urdiñarekin eta Atano gorriarekin.

Lenbiziko tantoa Retegi'rentzat, bañan Atano'k berdindu eta tanto bat gehiago bere alde. (2-1) Trabesak 100-70 gipuzkoarraren alde. Gero Retegi'k bere bigarren tantoa egiten du eta berdindu. (2-2). Trabesak orai 100 duro naparraren alde. Erasundarrak bere sasoi erakusten du, azkar dago ta aisa ari da. Bigarren tantotik amargarreraño zuzen zuzenean joan da eta orduan trabesak 400-80 bere alde uyu egiten dutela. Atano'k ez du amor eman nai eta honek ere bere ahalmena erakusten du borts tanto lerro lerro eginik (7-10). Orai trabesak berdinean 100 duro urdiñaren alde. Retegi'rne dago eta berriz ere bere ezker ikaragarriarekin pilota errausten duela sei tanto lerro lerro eginik amaseigarreraño (16-7). Trabesak 400-70 erasundarraren alde. Gero Atano'k bere zortzigarrena erdietsiko du eta hortan geldituko da (8-16). Trabesak 400-100 urdiñ. Auzia erabakia dago erasundarra nausitu da eta gero ta indar gehiagorekin ari da, azkoitiarra berriz arras nekaturik bere kontrarioaren menpean dago. Retegi'k bertze sei tantoak egiten ditu eta auzia beretu 22-8. Retegi Txapeldun. Zorionak.

Partidak 49 minutu iraun du. Retegi'k saketik borts tanto egin zituen eta bida bakarrik Atano'k. Federazioeko aintzindarien eskuetatik Retegi irabaztaleak, Ohorezko Txapela eta Kopa hartu zituen. Atano'k ere bere saria eskuratu zuen. Orai arte Euskalerriko pilotarien kondairan ez da nafartar txapeldunik izan eta orai Retegi'ren garaipenarekin lenbiziko aldia da napar batek Espainia'ko pilotarien Gaña erdiesten duela eta hori erasundar pilotariak egin du. Ohore gure Txapeldunari. Napartar pilotazaleak pozik gaude.

Joan den Abendoaren 11'ean eta Naparroa'ko Federazioak antolatutarik, Iruñe'ko «Labrit» deitutako pilota plazan, Retegi txapeldunari ohorezko omenaldia egin zioten. Omenaldi hontan bi partida yokatu ziren. Lenbizikoa, Retegi txapelduna bakarrik, bi pilotarien kontra, erasundarraren kontrarioak Ezkurra ta Etxabe amekagarrena izan direlarik. Partidak etzuen kolorerik izan. Ezkurra ta Etxabe'k partida airez aire irabazi zuten, txapelduna amabigarren tantoan utzirik 22-12. Retegi'k ahalmen guzia erakutsi zuen baña bikote azkarra gertatu zitzaion, bi baten kontra ziren ta gañera bi hoiere ere pilotan ongi dakitenak. Retegi'k galdu zuen baña halare txalo ederrak egin zizkieten, han bildu ziren guziak erasundarrari beren omena agertuaz.

Hemen Espainia'ko Pilotari Txapelketaren Kondaira.

1940	Donostia'n	ATANO III, 22; Iraeta'ko Txikito, 8
1942	Donostia'n	ATANO III, 22; Atano VII, 5
1944	Bilbo'n	ATANO III, 22; Felipe, 8
1946	Eibar'en	ATANO III, 22; Akarregi, 16
1948	Bergara'n	GALLASTEGI, 22; Atano III, 6
1950	Eibar'en	GALLASTEGI, 22; Akarregi, 15
1952	Bergara'n	GALLASTEGI, 22; Akarregi, 14
1953	—	BARBERITO (Gallastegi'k uts egin zuen)
1954	Eibar'en	SOROA, 22; Barberito, 4
1955	Bergara'n	ARRIARAN II, 22; Soroa, 13
1956	Eibar'en	ARRIARAN II, 22; Gartzia Ariño, 13
1957	Bilbo'n	G. ARIÑO, 16; Arriaran II, 11 (Arriaran'ek min artu ta utzi egin zuen)
1958	Tolosa'n	OGETA, 22; Arriarán II, 7
1959	Bergara'n	OGETA, 22; Gartzia Ariño, 13
1960	Eibar'en	AZKARATE, 22; Ogeta, 19
1961	Bergara'n	AZKARATE, 22; Etxabe X, 7
1962	Gazteiz'en	AZKARATE, 22; Gartzia Ariño, 14
1963	Tolosa'n	G. ARIÑO, 22; Azkarate, 2
1964	Donostia'n	AZKARATE, 22; Gartzia Ariño, 14
1965	Donostia'n	AZKARATE, 22; Atano X, 17
1966	Eibar'en	ATANO X, 22; Azkarate, 13
1967	Donostia'n	AZKARATE, 22; Atano X, 18
1968	Donostia'n	ATANO X, 22; Azkarate, 17
1969	Bergara'n	RETEGI, 22; Atano X, 8

URTAIN

Gure boseolari euskalduna badoa aurrera. Joan den Hazaroaren ogeitabian Erroma'ko iri famatuan bere ogeitabigarren kontrarioa porrokatu du. Ogeitabi borrokaldi eta ogeitabi garaipen, ogeitabiak ankaz-gora bota dituela. ¡Beharko. Urtain'ek ongi arrapatu ezker!


Gure euskaldun boseolariaren kontrario guziak borrokaldia egin baño len onak omen dira eta hoietako asko lehen-mallako boseolari onekin neurtuak. Bezperan ain onak direla ta borroka biaramunean «pakete» bat bartzetik ez; ala diote zenbaitzuk, orai arte Urtain ekin yokatu diran guziak deus ez direla eta dena «tongoa» dela, bañan hoiere argelkeriak eta bekaizkeriak dira hola mintzatzen direnak bere griña txarra agertzen dute, bertzeen ongia ezin eramana. Urtain aurrera doa eta aren baitan uste osoa dugu, 200 kiloko arria biz-

karreraño jasotzen duenak badu indarra eta horren ukaldia nai ta naiez aundia behar du izan eta boseolari batentzat indarra ta zartako aundia dira bere lagunik hoberenak. Gañera gizon zaulia da eta boseoan ongi ikasten badu, dudik eztago munduko hoberenetakoa izango dela.

Oraindikan amaika «pakete» bota beharrak aidian, hoietatik gelditzen balin badira beintzat, eta hoiere artean Europa'ko onenak ere barne direlarik. Norbaitek irabaziko diola? Hori ere bai, nik ez dut ukatzen, mundu hontan beti izaten baitira «Yaunaren Yaunak» bañan oraindikan ez dugu hori ikusi.

¡Aurrera José Manuel!

ANZANARRI



Zertako ez du HERRIA-k gure eskuara?

Zeren «Herria» ez baita herri batentzat egin, bainan ba eskualdun diren herri guzientzat.

Zeren herri baten eskuara bakarrik erabiltzen bagina bertze herriak baztertzea bailitake.

Eskuarak ez du behar berezle bainan bat-egile. Hortako ikas dezagun eskuara, ez «gure» eskuara bakarrik, bainan orotan ibiltzeko on den eskuara bat.

Ikasteak ez du nihori kalterik egiten: izpiritua aberasten du, jakintsunago egiten. Eta izpiritua kurios duena laster oartzten da gauzari eta zalu ikasten du.

Asko hitz ez dira baitezpada desbardin herri batetik bertzerat bainan erabiltzeko molde bat dute berezia: axala dute doi bat desbardin. Hitzaren erroa aldiz frangotari ber-bera.

Ez dela zure eskuara? Baditake. Bainan laster zurea ere izanen da, zuk ere hartzen badiozu eskuara horri bere alderdia.

Egia erraiteko, nun da, untsa pentsatu-ta «gure» mintzaira: gure etxean bakarrik naski!

Erdarazko kaseta bat zabaltzen badugu ere ez bide du ez, naski, «gure» frantsesa: edo zerratuagoa, edo, berdin, arruntagoa.

Goazen gu kaseta huntan eskuaratik, eta ahalaz onetik. Hura izanen da beti «gurea».

E. L.

(HERRIA-ren 1010-garren zenbaitik jaso. 1969-ko abenduaren 11-koa).

Foto hauek MENAK egiñak dira

Retegi Jon Iñaki Jaunari eskutitz agiria

Zure aita zenaren adiskide zaar batek idazten dizu, zu ezagutzeko zoriona ez badut ere oraindik.

Barkatu bearko didazu, bear bada, nere ausardia; bai baña ikusirik zure egikunde itzal gabe ori, Atano X'garren aurka Bergara'ko pilota enparantzan, eziñ utzi degu lerro batzuek, Eratsungo «Sastin estankeroan» (zure aitari aunitzek olaxe deitzen zioan alderdi ortan) semeari zuzendu gabe.

Toki guztietan jaiotzen ditu Jaungoikoak, gizon eta emakume azkarak, eta ala, Eratsun erri txiki, mendi tartean, ospel-antzako leku artan, sortu zan, gure txapeldun egiazko auxe, Atano X'garrena menperatuaz argi ta garbi.

Ez da txantxetako egikundea zuk aurrera atera dezuna, ainbeste gorabera erabilli ondoren, illabete bat, bi ta iru baño geiago aurretik, au ta bestea dala; gaur jokatuko ote zan, biar izango zala saioa ta abar...

Ez dezu noski garaitu Atano X'garrena, bera, sasoi onean etzegola-koz, urte batzuek ba daramazki ere bere bizkar gañean, zuk baño gei-go. Ziur aski, ongi gerturik bear zun egon, denbora aski izandu edo artu bai zun ortarako, iñork eragorpenik jarri gabe. Ez, Atano X'garrena, ala beste bere taldeko guztiak, ez dira nola naiko gizonak, pillotari bezala berenez, eta oni erasten bazaizkio beren jakintzak gai ontan; esan nai degu, jokoan txoakoak ta beste jokalarien izakerak, dakizkiela edozeinek bezin ongi edo obeki, irakasle bai dira aspalditik, batezere III'garrena... Orrengatik diogu, ez zerala Retegi, makala, zuk egin dezuna egiteko txapelketa ontan, Atano X'garrenari «txapel zaletu» ori kentzeko. ¡Bijondaizula!

Aurretik esan degun bezala, itzal gabeko garaikundea zurea, Jon Iña-



ki, egun ortan aurre-aurre, Atano X'garrena baño geiago agertzean Bergara'ko enparantzan, jokoan ta gañerako era guztietan. Naparroa'ri eman diozu esku jokoan aintza aundia, beste zenbait azkarak (ixiltzen ditut izenak iñor ez biotz-mintzeagatik) beste joka-eratan, pillotan jakiña, antziñeko denboretan. Jokalari bezela jatorki ta kementsu agertu ba zera, napar bezela zer esanik ez dago, zure zori-on ori eskeñiaz Naparroa'ri ta napar guztuari.

Esker aunitz ematen daizkitzugu, eta urte aunitzetan ere iraun dezala Bergara'n zureganatu dezun txapel orrek zure buru argi ortan, ez baita toki txarrean ezarri.

GURATZ

ERRIZ-ERRI.



ETXARRI ARANAZ

Kaixo: hemen gera berriz itz pixka bat egiteko asmoan. Orain-goan ordea, eman diran pausak onartuz. Aurreroko aldirian esan genun Etxarriko elizan euskera oso gutxi mintzatzen zela. Orain gauzak aldatu dirala esan beharrean gaude: S. Frantzisko egunean, eguerdiko ordubatan hasi bai zan euskerazko meza bat. Uste baino hobeto hartu du jendeak meza hau. Pozgarria. Gure eskutan dago orai meza honi edertasun gehiago ematea. Hasiak gera abestiren batzuk ikasten. Gostako dan gauza da; baino uste dugu merezi duela.

Beste berri bat ere oso pozgarria ba dugu: haurren ikastola ezartzeko jokabidean dabil guraso multxo bat. Gauzak ongi balin ba djoaz, uste dugun bezala, gure ikastola lanean hasia izango da **Principe de Vianan** lerro hauek agertu orduko. Ohartu gera ikastola oso beharrezkoa dala gure herri honetan, bestela denbora gutxi barneko ez bai du gure izkuntz eder eta maitagarri hau iñork mintzatu. Eta okerrera da, euskera baztatu eta uzten duten gehienak ez dutela bestelazko izkuntzik ondo ikasten, galdu dutenaren hitz eta joskerak beste izkera arrotzean nahasten dituztelako. Negargarria; berena galdu eta besterik ez ondo ikasi. Oso gertu dauzkagu hau gertatzen dan herriak; eta geuretik atera beharrik ez daukagu hau ola dala ikusteko.

Ikastoletan erakusteko moldeak, gainera, munduko herri aurreratuenen modutik hartuak dira.

—oOo—

Eta azkenekotz, nahi duten neska mutil guziak beren euskal alfabetatzeko ikasgaiak izango dituzte aurten ere. Laister hastekoak dira. Beasain aldean ikasten ibiliak diren hiru erriarrek emango dituzte. Ez da makala gure herrian sortzen ari dan kezka. Bizi guralako marka. Aupa mutillak!

Gazte taldekoak



BAZTAN

BESTAK

Berroeta, Gartzain eta Ituren'go herriek Sanmartinak ospatu dituzte eta besta hoiek in aurtengoak akitu zaizkigu. Egunaldi ederrak goxatu dituzte eta hortan suerte ona izan dute, geheinetan ezpaita hori gertatzen. Aurten berroetarrek Sanmartinek bi egunez aintzinetu dituzte eta hola eginez San Martin eguna irugarrena izan da. Merexi du aipatzea Berroeta'n eginikako bertsolari besta. San Martin egunean, Mattin ta Lazkaotxiki ospe aundiko bertsolariak ari izanak dire, lehenik eguerdi aintzinean eta gero arratsaldean. Yende aunitz bildu zen eta bi kobliaren kantaldia denen gogokoa. Zer irri-ajatak egin ote zuen yendeak bi bertsolari hoi atraldiekin, izan ere bi hoiek erraten dutena beti izaten baitu

gatza. Txalo ederrak entzun ziren bi kobliaren ohoretan eta ongi merexiak halare.

Iru herri hoietan dantza eta soñu auserki izan dute eta erran beharrik eztago etxe guzietan otordu ederrak egin dituztela.

M. IZETA

ESKOLAK

Urriko ilabetea ikastaroaren garaia, Ikastolak eta Ikastetxeak ikaslez beteta. Gizadia aurrera doa eta oraiko biziak kultura eskatzen du eta zenbatenez ta geiago ta obe, gaurko egunean kulturik gabe deus ezpaita. **Eta gure euskal-kultura zertan dago? Zer egiten dugu euskal-kulturaren alde?** Euskalerrian barna eta batez ere Gipuzkoa aldean badira ikastolak, aurrentzat eta bai aundiagokoztat eta badira ere euskal irakasleak alfabetatze lanean gogor ari direnak. Orre-la yokatzen direnak badute euskalkontzientzia, badute zaletasuna.

—oOo—

Eta gure eskualdean bai al da olakorik? Zer edo zer ageri da, badakigu Olazagutia'n Iruñe'n Tafalla'n, Aitsasu'n badirela ikastolak, badakigu ere Elizondo eta Irurite'ko eskoletan eguneroko ordu erdi batek, eskuarazko erakustaldiak ematen dituztela. Eztaikit ikastaldi oiek probetxu aundikoak izango ote diren, deusere eztaikitenendako oso zalla baita ikastea, ortarako aunitz mintzatu bear baita eta bai zaletasun aundia ere, au gabe ezpaita deusere egiten ahal. Bañan ari izanez ikasten baita irakasleen lanak zitu onak eman dezazkete.


—oOo—

Lamierrite'ko eskolan, yaz bezala aurten ere ari dire, bañan erraten dutenez aurten gauzak aldaketa aundia izan omen dute. Igaz bi maestrak euskaldunak ziren eta erakustaldiak zuzentasun osoarekin egin omen zituzten aur euskaldunei ikaskai guziak ongi adieraziaz eta lan ederra eginik. Aurten erakusketak oiek aldakuntza aundia egin omen dute, orai ekarri dituzten bi maestra berriak ezpaitakite eskuaraz eta or omen dabilta aunitz aldiz aur euskaldun oiekin elkar ezin konprendituz. Negargarria da gertatzen dena, alde batetik euskeraz ez dakitenei gure mintzaira erakusten eta bertze aldetik aur euskaldun garbien artean eskuara galazten. Norbaitek erranen du aur oiek bear dutela erdara ikasi. Bai ori egia da bañan aunitzez obekiago erakusten al dabe erakustale euskaldun batek erdaldun batek baño, eta gañera eskuarari kalterik egin gabe. Guk eztugu neskatxa oientzat deus erratekorik oiek ezpaitute errurik.

—oOo—

Baztan'go erri batean ere gauza berdintsua gertatu da. Igaz ume txoen eskolan maestra euskalduna zuten eta gauzak ongi gan omen ziren, bañan aurten maestra ori Erriberara igorri omen dute eta orren orde berte maestra erdalduna ekarri. Nork egiten ditu olako bidegabekariak? Zenbaitzuk orre-ri ez diote inportantzi aundirik emanen, gure eskualdean aunitz eta aunitz baitira gure eskuara ez dutela bi sos baño geiago estimatezen. Bañan zer ari gara geren buruari arrika? Gauza oiek guziak ongi zuzendu zaizken bear den bezalako euskaldunak izan baginezke.

ENTZULE



LESAKA

«BETI-GAZTE»

Ille aundi bat, azkanarruen antz; «patilla» luzeak, eta, ondo edo ez aiiñ ondo zaitutako bizarra kokotatik bera. Ator argi bat; galtza la-sai batzuek; oñetakoak zarrastan...

Onelakoa omen da gaurko gaztedia. Ijitu antzekoa. Ariña. Buru gabekoa. Alperra... Igingarria, baten batek dionez. Ala ote? Aiiñ ake-larre? Zuk siñes ezazu; nik ez dut ala uste!

Mendien artean beitua, zugaitzez inguratua dagon erreka txukun baten bi aldetik, etxe txuri mordoskada, bat bertzien ondolik, eskolako aurrak bezela, sallan. An erri bat: Lesaka. An gaztedi bat. An «Beti-Gazte».

Izen polita, maitale guztien zeru urdiña bezela; amasei urtetako ametsa iduri. Izen polita...: «Beti-Gazte». Uda-berria.

Orain dala ogei-ta-amar urte, Lesakako erriak euki omen zuen, «Beti-Gazte» izen onekin, gaztedi alkarte bat. «Futbolea», «balonea» iokatzen omen zuten, batez ere. Ni zerbaitez oroitzen naiz: an ta emen garaile irtetzen zirela. Ori gogoan daukat. Orain dala amar-amarbi urteko kontuak!!

Poliki poliki, urtetik urtera, «Beti-Gazte» ura moteldutzen ioan zan. Orain dala bost bat urte itto zan, il zan, ixildu zan «Beti-Gazte»; ta, berekin ixildu ziran, baita, Lesakako gaztedien amets ta egin be-rrak. Udazkena.

Gero, bost urte luzez, egun tris-teak. Gaztea, banatua, ostatz ostatu irurogei urteko gizonen pare, zer egin etzakilarik. Emezortzi-ogei urteko gazteak motel-motel. Negu beltz.

Gaur, orain dala iru illabete ez-kero, berriro gazte alkarte giro go-xo bat. «Beti-Gazte» berriro gazte. «Beti-Gazte», ogei ta amabost urte sorturik, gaur, atzo berpiztua. Gaztedia berriro batatua, zer edo zer antolatua naiez. Or goiz eguzki gar-bi. Or uda-berri.

Zerbait badago, gauz aundirik ez arren. Sortu dira, beintzat, lenda-biziko «xeiskiuak», gora-berak. Au egin bearrez zabiltzala, nik ezdakit nork ez diotela utzi; alako gizonari baimena eskatu bear ziotela... Ba-ten bat bi aurpegikin mintzatu da-la; erriko buruak ez daudezila oso konforme, ez direlako gauzak bear diran bezela egiten, astirikan ga-be... Baten batek arria bota ta es-kuia gordetzen duela...

Or lendabiziko «xeiskiuak». Bea-rrak, benetan. Ez izan ditezen asa-rre bideak.

«BATASUNEAN DAGO INDARRA». Gaztea alkartua. Baño, ez izan gai-tezen gazteok bakarrik; egin de-zaiogun besteendako ere leku pix-ka bat. Asarrerik gabe, danok egin dezagun «Beti-Gazte». Erri guztia batatua. Lesaka dana alkartua. Gu-ztiok bat; guztiok «Beti-Gazte». Au, aiiñ gaixto ote? Ez da, noski, amets txarra. «Batasunean dago indarra».

«Beti-Gazte»: amets berri; gazte odol gorri; asmo garbi. DANOK BAT: pixtu da Lesaka erri!!

Anthon

Orra, orra, gure Olentzero



Aspalditik eldu den oitura da **Olentzero**; tiki-tiki nitzenian begitzen nion beldurrez, gero mutilkoxor, neunek eta adixkideak egiten genun **Olentzeron** itxura. Illabete bat lenago asitzen giñen auzoko lagunak, lau edo borts lagun baten etxean, irugarren goit-tian, edo ukullun, gure lana egitten sekretu aundian, zertaz ezgen-dun nai iñork ere ikustia Eguberri arte

Nexkak ere berdin, eben etxean egitten zuten Jaiotza, bere go-roldi ta lurrezko santukin, Aurtxo Jesús, José ta María, bildotx, asto idi ta iru errege ingurutuaz. Eguberri bezperan, arratsaldeko irutan gotti-betti, ateratzen giñen, etxez-etez **Olentzerori** kantari; nexkak euren **Gabon kantak**: «Guazen guztiok, Beleenera...»

Illunabarrean, erriko musikerun Olentzero, denetan ederrena, lau farola tartian, kalez-kale musikan soñun. Eztaikit zergatik baño, gurre erritan aditzen den **Orra, orra: gure Olentzero!** badu alako indar aundibat: gorputz guztian sortzen zait zorientasun xamurra, Orain ere egitten da Olentzero; aurten, beti bezala ikusi dut nexkak ta mutillak karriz-karrika, eben Jaiotza. Olentzero ta **¡Orra, orra!** kantatuz, zeru lurak zoragarritz bixtutzen. Arratseko amabietan, gauerdiko Mezan, **Eguberri kantak** Aurtxo Jesuseri eskeintzen: ¡Ar-kume ta gaztakin, goazen Belenera!



SALDIAS

SANTA LUZI

Aurten larunbatakin tokatu zen. Egoaldi oso otza, baño ateria. Ola-ko egunetan ez du on aundirik egi-ten euriak.

Entzun giñun Meza ederra eta euskeraz izan zela, eta itzaldia Le-sakako Bikario Jaunak egin zula.

Bazen otsa aizkora-apustua ere bazela, eta Latasak eta Mindegia-ki jokatzan zutela.

Aizkoldariak, beroien erruz, aiz-kora giroa guzia galtzen ari duela. Dena da «fiñ» jokatzan ez diralako. Pena da euskal-jostaketa ain aipa-tuz onetaz ori esan bearra.

Saldisko gazte batek bertso auk-atera ditu Santa Luziri buruz:

Abenduak amairu,
gaur Santa Luzia,
Donezteben bildu da
ugari jendia;
Santa Luzi dutela
jai izugarria,
Berak zaindu dezala
gazteri guztia.

Luzia neskatx gazte,
martir ta birjiña,
Sirakusa erriko
alaba txit fiña;

zure amari diozu
sendatu gaitzmiña
eta egin zera zu
zerukoan diña.

Goizetik asitzen da
elizan jai-pesta,
euskeraz Meza guzi
itzaldi're baita;
Santa Luziri eskatuz
begiteko bixta,
guziok badute gaur
nun egin konkista.

Turron eta mazapan
bazterretan azkar,
mutill eta neskatxak
karrketan zear;
badute zer ikusi,
zer mintzatu ta abar,
bakoitzak arki beza
bear duen izar.

EZKONTZA

Mantxeneko-bordako Joxe Migel Urte-berrik aldera ezkontzen zaigu Sunbilgo nexkatx batekin. Eztaiak datorren illaren iruan dituzte Sun-billan. Inozente egunean egiñen du-te pregoia.

Biotz-biotzetik ematen dizkiegu zorionik beroenak eta esaten die-gu «aunitz urtez».

MUTILLAK ETXERA

Jaunari eskerrak, ongi etorri di-ra gure oyan-gizonak. Nik uste ia denak emen dirala. Errikoak beñ-pin denak emen dira. Baserrietako bakarren bat izan liteke oraindik alleatzekoa. Deneri gure ongi eto-rrri biotzekoenak.

T. Otsandorena

San Martin Jaunaren iritzia gure artikulueiri buruz

Iritzi-neurketaren bearra.

Izan dedin eleketaz, edo berdin idazkiz, elgar-izketa bearrezkoa da. Elgar-izketa, iritzi-neurketa bat da.

Iritzi-neurketa orrek, fede oneko gizonen artian, bidea argitzen du, nundik jo bear dugun jakiteko.

Orregatik ez da gizonik, iritzi-neurketa onar ez dezakenik.

Gure aldetik, aste-astetik esana dugu: «...Baño norbeitik guk ez bezala pentsatzen badu, ager ditzala ortarako dauzkan arrazoi bereziak.

Bai, ez dugu bertzerik eskatzen: argitaratuko gaituan iritzi-neurketa.

GUREARTEKO IRITZI DESBERDIÑA

«Euskera mintzatuak» daramakin egoera trixte-tamalgarria ikusirik, ahal bezala, euskaldun diren eta euskaldun sentitzen direnen gogo-biotzak atzaraztea erabaki gendun, egun batez.

Ortarako «Principe de Viana'k» onartu dituan artikulua batzuk idazten ari gera.

San Martin, Euskalzaindiko idazkari dan jaunarentzat artikulua oiek: «...Unamunokeriak...» «...nahasmenkeriak...» «...soroetako mamu-mozoloen espantua», dira.

Gañera, ez gure esatez, baina bai berak dionez, artikulua oietan guk esaten degu: «...alperrik gabiltzala euskeraren alde lanean...» «...herriak gogorik ez duala...», «...euskerak bizitzerik ez duala...», «...egiten dan gutzia alperrikakoa dala...» eta.

Ori da San Martin jaunaren iritzia gure artikulueiri buruz.

—oOo—

San Martin jaunaren iduriko, gu euskerarenganako errudun aundi batzuk gera.

Erru ortan guk ez dugu sinisten.

Sinisten deguna da, San Martin jaunak gure idazkiak ez dituala ez ausnartu, ez ulertu.

Bestela etzitian egingo, egin dituan itxuragabeko akusazio gogor oiek.

—oOo—

Gu, akusazio oien mende ezin gindezke gelditu, eta bidezko dan bezala argitasuna eskatzen degu, iritzi-neurketa bat.

Eta eskatzen degu, euskera mintzatuaren izenean.

Ager ditzala, «Principe de Viana'ko» irakurleen aintzinean, akusazio oiek egiteko, gure idazkietan aurkitu dituan arrazoiak.

Ager ditzala ITZEZ-ITZ.

Onela argi eta garbi jokatu degu.

Eta oraindik bertatik diogu: errudun azaltzen bagera, atsegiñez zuzenduko degula erru ori.

Eskatzen degun argitasun orren zai gelditzen gera.

Dr. Hernandorena

Naparrak XVIII - garrenean

Julio Caro Baroja jakintsua or ari da ari lanean eten gabe. Liburu bat atera orduko bestea. Eta zeñen erakusgarri eta sakonak gañera. Caro Baroja gure Euskalerrriakin egunetik egunera lotuago ikusten det.

Bere aizkeneko La hora navarra del XVIII (Personas, familias, negocios e ideas) liburu guztiz gogoragarriya deritzait.

Euskeraz titulo ori onela ipiñi genezake: Naparroa emezortzigarren menpean. (Gizonak, pamilyak, arazoak eta asmoak).

¿Zer erakutsi nai digu Caro Baroja-k liburu onetan?

Emezortzigarren menpean, Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian bezalaxe, baita Naparroak ere mende artan, bertako seme argi ta gogotsuari eskerrak ezagutu zituala ikaragarritzko aurrerapenak.

Bañan ez Naparroak bakarrik. Mende artan naparraren aztarren eta susmo goragarriak Naparroatik urrutituz azaltzen zaizkigu askotan.

¡Aiek pamilyak zeuden sasoi artan gure Errian!

«Dirua lagun ona: yabe txarra». Bidasoa lurteko esaera zar ori jartzen du Caro Baroja-k bere liburu kopetan. Esaera orrek liburu benetan bikaina agintzen digula, argi asko dago asiera-asieratik.

Emezortzi-garren mendeko naparrak dirua laguntzat zeukaten era bat. Dirua lagun... Orregatik egin zituzten egin zituzten gauza arri-garriak.

Emen Gipuzkoatik Naparrura joaten geranian, guztiz arrituta geldit-

tzen gera sarritan zenbait jauregi miragarri ikustean. Asko ta asko urteak erasota agertzen zaizkigu, bañan zutik iraunerazteko borondatea nabaitzen degu oraindik alderdi askotan.

¿Noiz arte iraungo du borondate orrek?

Aldakuntza ikaragarriak ikusten ari gera toki guztietan, eta Naparroa ere gaurko dana berdindu naiko gaitz orrek jota dauka era bat zoritxarrez.

Julio Caro Baroja-k dio iltzea naiago duala Naparroa gezurrezko aurrerapen bideetan ikustea baño.

Gaurko naparrak, gaurko euskaldunak, dirua laguntzat ez, baizik jabetzat artu bait dute. Eta dirua, baztandar eta bidasotarrak dioten bezala, izan ditelen jabe txarrena izaki.

Dana dala, gure arazo esturiotan dabiltzanentzat Julio Caro Baroja-k berebiziko gaia goldeatu du.

Euskal kutsu sakona erantsi diyo gogoz bere liburuari. Arabar, bizkaitar, gipuzkoar eta alderdi bitako napartarren anaitasun sakona ager-erazten digu ederki baño obeto bere liburuaren zenbait tokitan.

Gure etsaiak argitan jarri ere bai Etsai oien artean, napartarren kontura parre egin naiean Aita Isla señalatzen du. Eta ez du arrazoi paltarik. Enredamakilla aundia bait zan.

Liburu ederra benetan Julio Caro Baroja-rena. Gure kondaira asko aberasten duenetakoa.

José de ARTECHE

(«Zeruko Argia» errebistatik ekarria).

«Nik, utsik ez»

Bazen, bazen...

Lagunetaz baliatzea atsegin zitzaion: aien laguntza sakeskerien batekin ordaintzea ere bai. Bakardadean artzen zituen azkeneko ortarako erabakiak. Ixilean zuen bere iokoa; aiez iñor ohartu gabe ariz, ta txarberia egin ondoan, eskuak garbituz.

Iñor nabari etzanean, an zoan gure gizona, arin arin, norbaiteri papartzakeriren bat egiteko asmo biziakin.

Negurriak ongi artzen zituen aitzinetik; ta gogoan zeukana azkeneraño osatzen zuen. Gerro... laister andik, ta etxean sar. Ziur ezdakigu; baña, ziotenez, eskaleraburuko best ol, ilzez iosi gabe zeuzkanak, kentzen omen zituen sorailura iotzen zenean, norbait aren atzetik bazioan, buruz bera zulotik erori zedin. Lasai zeiteken lotaratu orrela, iñoren bildurrik gabe.

Berez maltzurra zanez, ziria bateri ta bertzeari eztena sartzea izaten zan bere besta, xikenakin lan guziak bertzei egiaziz ta, al bazuen, irabazi ta protxu guzia osorik beretzat bilduz.

Danak partzuar nai zituen lanean: bera bakarrik aski izaten zan biltzean. Laneko garaian, erdi eri erdi lo zagola zirudin, naiz ez ala egon.

Salatzalea ere bazeukan, bera bezein maltzurra, unena ekenakin, ta ekena unenakin nasi ta, uni ta bertzei kalte egitera

prest zagona; urak nasi ta arrantza ohea zetorkiola ongi zakiema.

Orrela, zuzen edo makur, denen berri zakin, denen ibilertan ohar, ta denetaz zer esan bazeukan. Ez omen zan lan laztetarako on; agitz on ordea bere alde izpiritu argiz iokatzeko.

Lanean ongi ari dana ezdala esamesetaz konturatzen, aspaldi ikasitako gizona zan. Bere egin-beherra ongi egiteari loturik dagona, berean bakarrik dabil, geiagoko berrikerietan sartu gabe. Orrelako langile oken baliola, bere ontasunen azteko ongi zitzaion. Baña, iendeak balio ontan ohartzea, etzitziaion ain egoki: untik sortzen zitzaion laneko lagunetaz noiznai gaizki mintzate zikiña.

Laneko lagunaren belarrietaratu zan noizbait gaizki mintzate ori; oken atsekaberako; ienden marmaratako; bere zoritxarreako. Ienden marmarek ttpitu zioten bere gizontasuna: gezur-elez aspertu zituen, lanean pozik ari zitzaizkion lagunak: ta aspertze unekin aunditu zitzaion gure gizonari, bere gain artutakoaz erantzun beharra.

Baña, berenesteko ta aundi baitzan, etzeukan amor ematerik; ta aferak lagunekin baño obeki zeramatzkiela zion bein ta bitan nonnai.

Errankurak asi ziran ienden artean: ondameña ere nabarmendu zan lantokian: on baño kalte geiago etorki, nai ta naiez: norbaitek berari denen onetan, arpegira bota ere bai makurraren errua: ta gure gizona ostikoka abiatu, manduliek arrotu balute bezala.

Erran behar ta ere, aren gauzak gaizki zoazila, nork erran? Lanak ongi egiten etzituela, nork?

Uzta... Frutua...; ori, besterik da «NI» laguntzeko daudenek «NI» ez laguntzetik dator-kizue makurra. Makur osoa geroro!!! Zerbaitengatik gaizki mintzo izan naiz «NERE» laneko lagunetaz!

Len gertatuketik, bakoitxok gerok on zaigun esannai (moraleja) egokiak atera ditzagun.

Izpiritu alorrean, ez al dabilzan bat edo bi gutartean, bildur naiz, bildur. Maltzur oke-tatik esan nai dut, maltzur oke-tatik. Bestentzat, lana: berentzat ohore. Besteak neke: berek irebaz. Besteak asperrazi: berek: «NI» laguntzeko daudenek «NI» ez laguntzetik dator-kizue makurra NIK, UTSIK EZ!

Ibarrondo



Kezkatan

«Alako egualdia. Ta zer?», dio baten batek.

A, erri-jende gizajoa!: zuk egunero fabrikatik ioan-etorria egiñaz, gutxi zaizu arri eraso trumoitxu bat, ala, bi illabete euri tanterik gabe. Benetan, naiko dezu egualdi edertxoa; zakartasunik gabekoa. Naiko dezu; bañan naiko, larunbata ta igande egunetan eguzkia eukitzea. Asteko egualdien goraberak buru-berotzerik ez-dakarkizu. Zuk lana beti leku idor ta gorapeetan baidaukazu. Zuk, illabetero zere ordaña garbi garbi eskuratzea al baiduzu. Zu, etxeko kezkatan ordu pare bat egiñaz, kitto bai-zaude. Uste baidez, beintzat, zaudela. A, alako erri-jende buru-gorrra!

Begira baserriko langilleeri. Ezdaudez berdiñ. Zergaitik, ba, eldu dira kaleetara? Anztuak daukagulako. Anztuak, ta al bazaigu, ankapetuak ere bai. Kalera jetsi nai dute, bizi berri baten billa.

Zuri, kaletar, berdintxo zaizu eguzki ala euri. Aieri, baserritarri, ez. Ez noski. Aientzako, egualdia da eben izerdi ta lanen lagunik naigarriena. Egualdien laguntzerik gabe, aizeak daramaz buru-berotze, kezka ta karrakillak.

Zu, baserritar langille: egia dala errandako ori? Orrengaitik, aiñ maiz egualdiri buruz izketan ari zera. Egualdiari buruz izketatu; egingo dituen egualdiari antz eman;



gogobetez ala asarre. Egualdia da zure eguneroko berria. Radio ta aldizkariak (revistak) anztua, edo oroiopen laburra iskindutzen dioten berriak. Ez baidira konturatzen, biako gure ogia, gosea bete bearez, ta gure esnea, aur egarria il bearrez, ortik datorrela. Zure esku-tik, baserritar. Ta, zu —berriro diot—, egualdiak laguntza ukatzen badizu, etzera ezertxo.

Azken ontan jetsi dan euri au, ez al da aunitzendako nazka izan? Zuk, baserritar, zuk bakarrik esker-tu dezu barren-barrendik. Sumatu bai-zenuen idortearan ximurkeria. Ta, urria baño naiko zenuen lurak edana daukan euri on ori.

Kezkatan. Baserritar ta kale-jende. Betei kezkatan.

Iñoiz entzun al dezu, adiskide: «sorta illabetea»? Ez dakizu zer dan? Ba, aintziñekoak erakutsitako sineskai bat dala diote. Alde ontan, Baztan ta Bidasoa erreka ontako baserrietan, indar berexia daukala sinismen onek erratea ezda gezurra.

«Sorta illabetea» agutzuari deritzaio. Ta, ona emen zer dion sineskai onek: agutzu illabetearen amabi lendabiziko egunetan egin dituen egualdiak, urteko amabi illabeteetan egingo dituen egualdien aurrerapen bat omen. Egun bakoitza, bere illabeteekin egoki dira.

Onela, lendabiziko eguna, agutzu illabete berari. Bigarren egunean egin zuen egualdia, iraila illabetearen egingo duena. Ba, ze illabeteekin egoki ote, agutzuaren... amarra? Sineskaiak dionez, urrengo urteko maiatzari.

Au aipatzen dizuet, ikusi dezazuten, baserritar ta lur-langilleak itsurik gabeko sineskaiak sortu ta asmatu dituztela, egualdiri dagokionez. Onela, baita, badira ostirale-tan egualdiak itsuraz aldatzen dala sinisten dutenak. Egia ote? Ez. Ez au, ta, ezta «sorta illabete» sineskaia ere. Ezda gertatzen. Ta, gertatzen bada, ustekabez. Zertaz, agerian dagon gauza da, ez ditula alako edo onelako egualdiak egiten... zertaz bai; gizonak ikutu ezin dituen arrazoi batzuen gaitik, baizik. Gaurko eguzkiak, biako euri-an adieraziko du. Ta, eguzkia ta euria ez ditugu zuk eta nik sortuko. Edo bai?

Artean, kezkatan. Baserritar ta kale-jende. Betei kezkatan.

ERKIRIA

